



Espediente zk./Nº expediente: 2024SZUZ0016 **Erreg. data/Fecha reg:** 2024/02/28
Erreg. zk. / Nº registro: 5086
Gaia/Asunto: TEKS - BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ELKARTEAREN 2024KO EGITASMOA
Eskatzailea/Solicitante: TEKS **NAN(IFK)/DNI(NIF):** G09823808
Kokalekua/Emplazamiento: ERRENTERIA

DEKRETUA

DECRETO

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS) irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Elkarteen honen helburuak, ondorengoak dira:

Batetik, teknologia librearen ekonomia sozialaren ikuspegitik sortu eta saretea. Burujabetza teknologikoaren bidean pausuak ematea, burujabetza materialen ikuspegi integrala bermatuz, eta interkooperazioa, elkartasuna eta zaintza harremanen eta proiektuen erdigunean jarritz.

Bestetik, merkatuaren gaitetik herri eta komunitateek teknologiarik loturiko gaitetan erabakiak hartzeko gaitasuna izatea. Alegia, nork bere politikak definitzeko aukera izatea sustatu nahi da, proiektu kooperatibo eta eraldatzaileak garatuz.

Honetarako, 2024 urtean TEKS erakundeak, ondorengo eginkizunak burutu nahi ditu:

→ Software eta hardware libretan oinarrituriko proiektuen formazioak planteatu.

→ Teknologia libre eta ekonomia sozial eraldatzailearen inguruko ezagutza zabaltzea.

→ Teknologia libreen garapenerako zerbitzu arreta kolektiboa prestatu.

2024ko otsailaren 28an, 5086 sarrera erregistro zenbakiarekin, 2024ko ekitaldirako proiektu bat aurkeztu du 18.000 euroko aurrekontua duena

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ERAKUNDEAK jarduerak sustatzen ditu Errenterian.

Udalak ekintza horiek interesgarritzat ditu.

Aipatutako elkarteak bere zerga obligazioekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dago.

Dirulaguntza, 2024-2027 dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasoa dago.

Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS) es una asociación sin ánimo de lucro, cuyos objetivos son los siguientes:

Por un lado, la creación y distribución de software libre, para la tecnología de economía social. Esto se basa en pasos hacia la autosuficiencia tecnológica, desde un punto de vista integral, poniendo en el centro la intercooperación y la solidaridad.

Por otro, ofrecer al pueblo y las comunidades la capacidad de tomar decisiones en el ámbito tecnológico, por encima de lo que ofrece el mercado. Pretende fomentar la oportunidad de desarrollar una política propia para cada cual, creando proyectos cooperativos y transformadores.

Para ello, TEKS plantea realizar las siguientes acciones en el año 2024:

→ Formaciones en el ámbito del Software y Hardware libre.

→ Ampliar la red conocimiento en torno a las tecnologías libres y la economía social.

→ Prestar un servicio de asesoramiento colectivo para el desarrollo de tecnología libre.

Con fecha 28 de febrero de 2024 y registro de entrada n.º 5086, ha presentado un proyecto para el ejercicio 2024, con un presupuesto de 18.000€.

BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ERAKUNDEA promueve la actividad en el municipio de Errenteria.

El Ayuntamiento considera de interés las actividades que realiza la asociación citada.

Dicha asociación está al corriente con sus obligaciones tributarias y Seguridad Social.

La subvención de encuentra recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027



2024ko aurrekontuan elkarte onuradunaren izenean aurrekontu aplikazio izenduna jasotzen da.

En el presupuesto de 2024 incluye una aplicación presupuestaria nominativa a favor de la entidad beneficiaria.

ZUZENBIDE OINARRIAK

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Diru-laguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.
- Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).

- Errenteriako Udalak 2023 urtean emango dituen diru-laguntzen Oinarri Orokorrak (2023/11/08ko 2758 zk.ko dekretua), modu osagarrian aplikatuko direnak.

Espedientean jasota dago 2024ko martxoaren 21ko txosten teknikoa, Ogasun eta Garapen ekonomikoko teknikariak sinatua.

Udal Idazkariak 2024ko apirilaren 3an oniritzia eman dio dekretu proposamenari.

Udal Kontuhartzaileak, fiskalizazio txostena 2024ko apirilaren 4an sinatu du.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA USTATZEKO ERAKUNDEAri 18.000 euroko dirulaguntza ematea 2024ko urtean zehar bere proiektua gauzatu dezan.

2.- 18.000 euroko gastua baimentzea eta xedatzea, indarrean dagoen aurrekontuko 0320.481.02.439.00 partidaren kontura, AD-1156.

3.- Dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da:

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.
- Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG 10/08/2015).

- Bases Generales para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria del año 2023 (Decreto nº2758 08/11/2023), de aplicación supletoria.

Consta en el expediente informe técnico de fecha 21 de marzo de 2024 suscrito por el Técnico de Hacienda y Desarrollo Económico.

La secretaria municipal ha dado el visto bueno a la propuesta del decreto el 3 de abril de 2024.

La interventora del ayuntamiento ha firmado el informe de fiscalización el 4 de abril de 2024.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por el asesor jurídico municipal a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

RESUELVO

1.- Conceder a la asociación BURUJABETZA TEKNOLOGIKOA SUSTATZEKO ERAKUNDEA una subvención de 18.000 euros para la ejecución de su proyecto durante el año 2024.

2.- Autorizar y disponer un gasto de 18.000 euros con cargo a la partida 0320.481.02.439.00 del vigente presupuesto, AD-1156.

3.- El pago de la subvención se realizará de la siguiente forma:



→ %80, hots, 14.400€, hitzarmena sinatzean.

→ %20, hots 3.600€, egindako aktibitateen memoria jasotzen denean.

4.- Elkarte onuradunak, 2025ko matxoaren 31a baino lehen, dokumentazio hau aurkeztearen baldintzapean egongo da:

- a) Proiektuaren memoria.
- b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunekoa.

5.- Dirulaguntza jasotzeko elkarre onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren eguneratua izatea beharrezkoa izango da.

6.- Ordenantza arautzailean edo dirulaguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak dirulaguntza berrikustea suposatzen du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetarako Lege Orokorrean agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa egin beharra erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

7.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta Udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

→ %80, es decir, 14.400€, a la firma del convenio.

→ 20%, es decir, 3.600€, cuando se reciba la memoria de las actividades realizadas.

4.- La entidad beneficiaria deberá presentar, antes del 31 de marzo de 2025, la siguiente documentación justificativa de la efectiva ejecución del proyecto:

- a) Memoria del proyecto.
- b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

5.- Para la percepción de la subvención será requisito por parte de la entidad beneficiaria el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

6.- El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijen en la ordenanza reguladora o en la concesión de la subvención, supondrá la revisión de la misma y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Además, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos que figuran en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

7.- Notificar esta resolución a la asociación beneficiaria, remitirla a la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) y publicarla en el portal de transparencia del Ayuntamiento.

Errenterian,

Errenteria,

Garapen Ekonomikoko zinegotzi delegatua/ Concejala delegada de Desarrollo económico

Leire Mazizor Egilegor



ERANSKINA / ANEXO

**ERRETERIAKO UDALAK Burujabetza
Teknologikoa Sustatzeko Erakundea
(TEKS)RI EMANDAKO DIRULAGUNTZA
ZUZENA, ERABILTZAILEAK TEKNOLOGIA
LIBREEN EZAGUTZAN TREBAKUNTZA
ESKAINTZEKO.**

**SUBVENCIÓN DIRECTA CONCEDIDA POR
EL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA A LA
ASOCIACIÓN Burujabetza Teknologikoa
Sustatzeko Erakundea (TEKS), PARA LA
FORMACIÓN DE USUARIOS EN
TECNOLOGIAS LIBRES.**

AZALPENA:

Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS) irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Elkartek honen helburuak, ondorengoak dira:

Batetik, teknologia libreak ekonomia sozialaren ikuspegitik sortu eta saretzea. Burujabetza teknologikoaren bidean pausuak ematea, burujabetza materialen ikuspegi integrala bermatuz, eta interkooperazioa, elkartasuna eta zaintza harremanen eta proiektuen erdigunean jarritz.

Bestetik, merkatuaren gaitetik herri eta komunitateek teknologiarik loturiko gaitetan erabakiak hartzeko gaitasuna izatea. Alegia, nor bere politikak definitzeko aukera izatea sustatu nahi da, proiektu kooperatibo eta eraldatzaileak garatuz.

Udalak dirulaguntza hau formakuntzarako emango du.

EXPOSICION:

Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS) es una asociación sin ánimo de lucro, cuyos objetivos son los siguientes:

Por un lado, la creación y distribución de software libre, para la tecnología de economía social. Esto se basa en pasos hacia la autosuficiencia tecnológica, desde un punto de vista integral, poniendo en el centro la intercooperación y la solidaridad.

Por otro, ofrecer al pueblo y las comunidades la capacidad de tomar decisiones en el ámbito tecnológico, por encima de lo que ofrece el mercado. Pretende fomentar la oportunidad de desarrollar una política propia para cada cual, creando proyectos cooperativos y transformadores.

El Ayuntamiento aporta esta subvención para gastos de formación.

KLAUSULAK:

Lehengoa: Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntza honen xedea da espedientean jasota dagoen *"Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS)"* proiektua finantzatzea.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntzaren diru-kopurua 18.000 eurokoa izango da, aurrekontuko 1 0320.481.02.439.00 (9540) partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren

CLAUSULAS:

Primera: Objeto de la subvención

El objeto de la presente subvención es el de la financiación del proyecto *"Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS)"*, que consta en el expediente.

Segunda: Presupuesto y financiación

El importe de la subvención queda fijado en 18.000 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0320.481.02.439.00 (9540), prevista nominativamente en el Presupuesto



Aurrekontu Orokorrean 2024 urterako.

General del Ayuntamiento de Errenteria para el año 2024.

Hirugarrena: Dirulaguntzaren iraupena

Tercera: Duración de la subvención

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2024ko abenduaren 31n amaituko da.

El presente convenio entrará en vigor el mismo día de su firma y finalizará el día 31 de diciembre de 2024.

Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak

Cuarta: Compromisos del Ayuntamiento de Errenteria

Dirulaguntza honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

Los compromisos adquiridos por el Ayuntamiento de Errenteria en virtud de la presente subvención son los siguientes:

a) Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS) elkartearen 18.000 euroko dirulaguntza ordaintzea, eta era honetan:

a) Abonar a la asociación Burujabetza Teknologikoa Sustatzeko Erakundea (TEKS) una subvención por importe de 18.000 euros, y de la siguiente forma:

→ %80, hots, 14.400€, hitzarmena sinatzean.

→ %80, es decir, 14.400€, a la firma del convenio.

→ %20, hots 3.600€, egindako aktibitateen memoria jasotzen denean, 2024ko Martxoaren 31a baino lehen.

→ 20%, es decir, 3.600€, cuando se reciba la memoria de las actividades realizadas.

Bosgarrena: Dirulaguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.

Quinta: Compromisos de la entidad beneficiaria de la subvención.

Dirulaguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

Los compromisos adquiridos por la beneficiaria de la subvención son los siguientes:

a) Ebazpen honekin batera doa eranskin gisa den formakuntza planaren burutzea, aurreikusiriko epean gauzatzuz.

a) Desarrollar la formación tenor de la documentación presentada, que se adjunta a la presente resolución como anexo, y en el plazo previsto al efecto.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

b) Solicitar cuantos permisos municipales o de otra índole se requieran.

c) Ordenantzen 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

c) Cumplir todas las obligaciones establecidas para los beneficiarios de subvenciones en el artículo 21 de la Ordenanza y el art. 14 de la Ley



y, en especial, las siguientes:

- Dirulaguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.
- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.
- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.
- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.
- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.
- Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.
- Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.
- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano competente, aportando cuanta información sea requerida.
- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación de los fondos percibidos.
- Acreditar (antes de la realización de cada uno de los pagos) que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social.
- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentación, debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control, es decir, en el plazo de cuatro años.



d) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

e) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Diru-laguntzaren entitate onuradunak diru-laguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatzizko komunikazioei dagokienez:

- Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herriarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herriarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

d) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley.

e) Cláusulas relativas al uso de los idiomas oficiales: La entidad beneficiaria de la subvención en las comunicaciones llevadas a cabo en las actuaciones objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices:

En lo que respecta a las comunicaciones escritas:

- Paisaje lingüístico:

Los rótulos, avisos, anuncios, tarjetas, publicidad y resto de comunicaciones se realizarán mediante pictogramas.

Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas, priorizando la versión en euskera (posición del texto, mayor tamaño de letra, negrilla). Previamente se consensuarán con el Ayuntamiento.

Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.

- Relación con la Administración: en el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 2/2016, de 7 de abril y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconocen a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.



Ahozko komunikazioei dagokienez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

f) Berdintasunerako klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute,

En lo que respecta a las comunicaciones orales:

Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran comunicarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales.

La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera. Cuando las características de la actividad o de las personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.

Los mensajes emitidos mediante megafonía durante los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.

Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vascoparlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.

f) Cláusula de igualdad: La entidad beneficiaria de la subvención deberá dar cumplimiento a los principios y obligaciones establecidas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista



emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipo sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidad de género.

g) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herriarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

g) Cláusula de medio ambiente: La entidad beneficiaria de la subvención con carácter general tendrá en cuenta la adopción de criterios ambientales en las siguientes materias: (1) eficiencia y ahorro energéticos, (2) gestión y recogida selectiva de las diferentes fracciones de residuos, además de la prevención en su generación, (3) no generar afecciones a la diversidad local (hábitats naturales, especies y procesos ecológicos), (4) ahorro de recursos naturales (agua, consumo sostenible), (5) recogida adecuada de las aguas residuales generadas, (6) impulsar una movilidad sostenible, y (7) no emisión de ruidos superiores a los topes establecidos en la normativa vigente y garantía de calidad acústica con respecto a la ciudadanía y el medio ambiente.

Udalan paperean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

En cuanto a la diferente documentación a presentar en el Ayuntamiento en soporte papel, se entregará en papel 100% reciclado, totalmente libre de cloro, e impreso por las dos caras.

h) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalen lankidetzat, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalen laguntzarekin". Esaldi hori Herribilduaren armarria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken

h) Hacer constar en la totalidad de sus actuaciones y en todos los medios de difusión utilizados (radio, prensa, carteles, programas de mano, etc.) la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria en la financiación del proyecto, bajo la frase "Con la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria", añadiendo a dicha frase el escudo de la Villa en caso de difusión escrita. Requisito que se cumplirá tanto si el Ayuntamiento de Errenteria fuera único colaborador, como en el



kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

i) Onuradunak, proiektua gauzatzeko, 15000 euro edo gehiagoko zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen dituenean (BEZik gabe) gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen. Nolanahi ere, salbuetsita geratuko dira, zerbitzu edo horniduraren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan zerbitzu hori hornitzen edo ematen duten nahikoa erakunde ez badago, edo gastua egin bada dirulagun tza eskatu aurretik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa (justifikatzeko dokumentazioarekin batera ekarri beharko dena) eraginkortasun eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da; eta, proposamen ekonomikorik onena hautatu ez bada, memoria batean berariaz justifikatu beharko da erabakia.

Seigarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.

Errenteriako Udalak Garapen Ekonomikoko Teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, 2025ko martxoaren 31a baino lehen, Udalean aurkeztu

caso de que compartiera este patrocinio con diferentes colaboradores. En este último caso la frase antes referida será cuando menos de igual tamaño que el de la mayor que se utilizara.

i) Cuando la entidad beneficiaria, para ejecutar el proyecto, contrate servicios o suministros por 15000 o más euros (IVA excluido) deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien (salvo que, por las especiales características de los servicios o suministros, no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención).

La elección entre las ofertas presentadas, que deberá aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Sexta: Seguimiento y justificación de la subvención.

El Ayuntamiento de Errenteria, mediante el técnico de Desarrollo Económico, llevará a cabo el seguimiento y comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

La entidad beneficiaria de la subvención deberá, antes del 31 de marzo de 2025, presentar en el



beharko du urteko ekintzen memoria grafikoa eta narratiboa, zerbitzuen ezagutzarako komunikazio estrategia, kontuen balantzea eta faktura originalak.

Ayuntamiento una memoria gráfica y narrativa de las actividades anuales, estrategia de comunicación para dar a conocer el servicio, el balance de cuentas y las facturas originales.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Los gastos se acreditarán mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa.

Jarduerak, dirulaguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste dirulaguntza publikoekin

Séptima: Compatibilidad con otras subvenciones públicas

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o privados.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Sin embargo, la presente subvención es incompatible con la percepción de otras subvenciones o ayudas provenientes del Ayuntamiento de Errenteria y/o sus organismos autónomos para la misma finalidad, de forma que la entidad beneficiaria renuncia a cualquier tipo de ayuda o subvención que le pudiera corresponder conforme a las convocatorias de subvención que se realicen desde los diferentes departamentos del Ayuntamiento o sus organismos autónomos.



Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37.

En cualquier caso, el importe de las ayudas concedidas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente, supere el coste del objeto de la subvención.

Octava: Modificación de las condiciones del convenio.

La entidad beneficiaria de la subvención podrá solicitar al Ayuntamiento, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones del presente convenio que supongan ampliación de plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando tengan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

El Ayuntamiento podrá modificar el presente convenio, previa comunicación a la persona beneficiaria y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tomadas en cuenta para la aprobación del presente convenio impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido, y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

Novena: Incumplimiento y reintegro de la subvención.

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones de la entidad beneficiaria de la subvención supondrá la revisión o resolución de la misma, y en su caso, la disminución o devolución de la cantidad otorgada, en los términos previstos en los artículos 23 y 37 de la



artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Hamargarrena: datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamabigarrena: Araubide Juridikoa.

Dirulaguntza honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Dekretu honetan jarri gabe geratu diren alderdi

Ordenanza y 37 y siguientes de la Ley, sin perjuicio de las responsabilidades que se pudieran exigir.

Para graduar los incumplimientos se utilizará el criterio de proporcionalidad.

Cuando no se pudiera o no interesara proseguir el desarrollo del trabajo por causas inherentes a la viabilidad o naturaleza del proyecto u otras debidamente justificadas, se podrá resolver o interrumpir la subvención de mutuo acuerdo.

Décima: Protección de datos personales.

En el caso de que se lleve a cabo tratamiento de datos de carácter personal, ambas partes acuerdan cumplir lo establecido en la el Reglamento Europeo 2016/679, de 27 de abril, relativo al tratamiento de los datos personales, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre.

Undécima: Prevención de riesgos laborales.

La entidad beneficiaria de la subvención, en el desarrollo del proyecto o actividades subvencionadas, cumplirá con la normativa vigente en materia de prevención de riesgos laborales, Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y normativa de desarrollo.

Duodécima: Régimen jurídico

La presente subvención es de carácter administrativo, por lo que su interpretación y desarrollo se regirá por lo establecido en la ordenamiento jurídico-administrativo.

En todos los aspectos que no hayan sido



guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Arautegia Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

establecidos en el presente decreto, se aplicará la legislación vigente en el ámbito administrativo y, en particular, lo establecido en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público. Subsidiariamente, se aplicarán las normas de derecho privado.

Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Decimo tercera: Jurisdicción competente

Serán competentes para resolver los litigios que pudieran surgir entre las partes los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastian, de forma que ambas partes aceptan la competencia territorial de los mismos.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2024SZUZ0016-DEKRETUA/DEKRETUA (ERREENTERIAKO UDALA)